


# EUSKARAREN JATORRIAREN I. BILTZARRA



Arantzazu, 2005eko azaroaren 19an

## 1. Egitaraua

- 10,00 Ongi etorria partaideei eta aurkezpena
- 10,15 Euskararen jatorriaren ikerleak Euskal Herrian eta atzerrian
- Josu Naberan: *Hitzen Koba: Euskararen jatorria eta eraiketa: erroak -hiztegi etimologikoa*
  - Imanol Mujika Alberdi: *El euskera es una ciencia* (Remo Bianchi eta Aitor Zugasti)
  - Martin Mendizabal: *El Catón de la Toponimia Vasca*
  - Josu Segurola: *Izadi eta gizaki arteko harremanetan lar*
  - Antonio Mendizabal: *Geografía y Toponimia de la Vasconia*
  - Felix Zubiaga: *Euskararen ereduak*
  - Urtzi Ihitza: *Euskararen Jatorri Aurkitua*
  - Pako Iriarte: *Sorgin taula eta doinuen konposaketa irudikapena. Balthasar Etxaberen Discursos de la antigüedad de la Lengua Cántabro Bascongada*
  - Antonio Arnaiz Villena: *Relación del Euskara con las lenguas Caucásicas y de las Américas.*
  - Vahan Sarkisian eta Augus Hunk: *txostenen aipamena (ez dute bertaraterik izan)*
- 12,30 Mahai ingurua
- 14,15 Bazkaria
- 16,00 Bittor Kapanaga: *Erro eta gara liburuaren azalpena*  
(euskararen 3 substratuen teoria)
- 17,30 Mahai ingurua
- 19,00 Amaiera





Euskararen Jatorriaren I. Biltzarraren hizlariak eta zenbait partaide. Arantzazu, 05.11.19



## 2. Aurkibidea

|  |     |
|--|-----|
| 1. Egitarua .....  | 1   |
| 2. Aurkibidea.....   | 2   |
| 3. Aurkezpena .....  | 3   |
| 4. Josu Naberan: <i>Hitzen Koba: Euskararen jatorria eta eraiketa:</i><br><i>erroak-hiztegi etimologikoa</i> .....   | 11  |
| 5. Imanol Mujika Alberdi: El euskera es una ciencia (Remo Bianchi -Aitor Zugazti).....   | 19  |
| 6. Martin Mendizabal: El origen del euskera .....  | 29  |
| 7. Antonio Mendizabal: Geografía y Toponimia de la Vasconia .....  | 39  |
| 8. Felix Zubiaga: <i>Euskararen ereduak</i> .....  | 49  |
| 9. Urtzi Ihitza: <i>Euskararen Jatorri Aurkitua</i> .....  | 57  |
| 10. Pako Iriarte: <i>Sorgin taula eta doinuen konposaketa irudikapena. Balthasar Etxabe:</i><br><i>Discursos de la antigüedad de la Lengua Cántabro Bascongada</i> ..... | 63  |
| 11. Antonio Arnaiz Villena: <i>Relación del Euskara con las lenguas Caucásicas y de las</i><br><i>Américas</i> .....   | 71  |
| 12. Josu Segurola: <i>Izadi eta gizaki arteko harremanetan lar</i> .....   | 79  |
| 13. Vahan Sarkisian: Contribución a la reconstrucción interna del vocabulario vasco<br>en el campo semántico de argi (luz) .....   | 91  |
| 14. Bittor Kapanaga: <i>Erro eta gara (euskararen 3 substratuen teoria)</i> .....  | 95  |
| 15. Angus J Huck: <i>Major Texts in the East Iberian Script - Summary Analysis</i> .....   | 115 |
| 16. Euskararen Jatorriaren Bibliografía .....  | 135 |
| 17. Elkarte antolatzaileak .....   | 141 |





### 3. Aurkezpena



Leire Saitua

Euskarak, Europako hizkuntzarik zaharrenak, misterio handia izaten jarraitzen du. Bere jatorria liburu, artikulua eta hitzaldi askotan azaldu den gaia izan da, baina ez da modu iraunkor eta sistematiko batez ikertu den alorra izan.

Une ona da ikerketa alor hau indartzeko. Batetik, Euskal Filologia sendotuz joan den neurrian, gero eta profesional gehiago dugu alor honetan. Bestetik, teknologia berriek informazioa elkar trukatzeko aukera gehiago eskaintzen digute, hemen bizi garenon artean zein atzerrian euskararen jatorriarekiko interes handia erakutsi dutenen artean.

Euskararen jatorria ikertzeari orain arte eman zaion garrantzia baino gehiago behar izango dugu, noizbait Europako misteriorik zaharrena argitu nahi badugu. Horregatik, elkarte antolatzaileok, urtero, biltzar bat egitea erabaki dugu, bi helburu ditugularik: bata, biltzar hauetan, orain arte gai honen inguruan egindako teoriarik garrantzitsuenak ezagutaraztea eta bestea, gai honetan interesa dugunok elkar ezagutzea. Eta, Biltzarraz gain, beste bi ekimen ere aurreikusi ditugu: webgune bat, informazioa jarri eta trukatzeko eta gai honen inguruko liburuak argitaratzea.

Euskararen jatorriaz ikertzeko, erabat irekita egon behar dugu, ezelango aurriritzirik gabe. Ez dugu aldeztu aurretik dauden proposamenen *iragazkirik* egin eta denek izan dute biltzar hauetan aurkezteko aukera. Lehengo urte honetan,



euskararen jatorriari buruz idatzi eta ikertu dutenen materialak ezagutarazi nahi dira, azken urteotan egin diren lanak bereziki azpimarratuz.

Euskara ikertzerakoan,  
metodologia konparatibistak erabili ohi dira gehienbat,  
batez ere latinarekiko loturak,  
baina euskararen beraren gogoeta herren geratzen da.  
Guk honako arlo hau garatu nahi dugu bereziki:  
euskararen erroak eta barne egituren ikerketa.

Hizkuntza politikaren menpe izaten da beti.  
Agian horregatik ez gara oraindik gai izan euskararen jatorria ulertzeko,  
burujabetza politikoaren faltan egonda,  
burujabetza linguistikoaren hutsunea ere badugulako.  
Euskara latinetik hasi zen aztertzen,  
hizkuntz bilakaerak aztertzeke idazkiak ordudanik ditugulako.  
Baina, idatzi izan ez den hizkuntza batek,  
beste bide batzuk jorratu behar ditu bere sorlekua aurkitzeko.

Bestalde, gu euskaldunok ez gara euskararen "propietarioak",  
propietate ideia hori, "egiten dut nahi dudana, da nirea"  
erromatar inperioak zabalduko ideia hori,  
guretzat berez ideia arrotza baita.  
Guretzat berezkoa dena jabetasuna da,  
jabetasuna ematea,  
Kasu honetan euskarari jabetasuna ematea,  
zaintzea, erabiltzea, gozatzea, jagotea.  
Euskaldunok, mende eta milaka urtetan zehar,  
Europa osoaren ondarea den Euskarak,  
bizi izan duen herria gara,  
iturri edo erreka batek  
inguruan sortzen zaion herriari bizia ematen dion bezala.  
"Euskarak bizi gaitu eta bizi bedi beti".

Askotan..., euskara berez bizi izan dugu, erreparatu gabe,  
zertan ari ginen jabetu gabe,  
eta beste batzutan jabetuta, euskara eta euskararen herria maitatuz,  
bizia heriotzaraino emanez.  
"Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak".

Gure herriari Euskara-Herria esan genezaioke,  
euskarak egiten baikaitu sustraitu eta uztartu.  
Eta heldua da garaia. Euskararen erabilera arruntetik harago,  
(horixe balio duela Coca-cola eta hamburgesak eskatzeko!),  
gure hizkuntzaren hausnarketa sakona eginez eta  
gure aurrean ditugun ikerlari hauek egin duten bezala,  
hizkuntzan benetan murgilduz,  
iritsi zaigu garaia  
euskarak daukan berebiziko bizitasun eta indarraz jabetzeko.  
"Mundua begiratzeko modu" honetan,  
orain eta hemen,  
unean gunean  
bizitzaren muinera heltzeko edo  
bizitzaren muinari heltzeko modu bat,  
ez bakarria baina geurea,



eta benetan azkarra,  
“antzina-antzina, jakituria zen nagusitasunaren seinale”  
garai hartako lekuko paregabea.

Jatorria ikertzeko, hasiera-hasierara goaz,  
gizakiak lehenengo soinuak ahoskatzen zituen garaira.  
Toponimiaren bidez, gure arbasoek  
leku, ibai eta mendiei izenak jarri zizkieten garaira.  
Gaur parte hartuko duten askok  
toponimian izan dute euskarririk garrantzitsuena  
euren teoriak plazaratzeko.  
Zubiagak dioen moduan, *toponimia historiaurreko oihartzuna da*.

Dakizuen bezala, Lehenengo Biltzar honetan  
Bittor Kapanagak egindako teoria izango da bereziki landuko dena,  
1978an idatzitako *Erro eta gara* liburua  
mugarria izan zelako euskararen paleolinguistikan.  
Kapanagak, euskararen mugan bizi izanik eta  
mendebaldeko euskararen oinarrituta,  
izugarrizko teoria garatu du.  
Zoritxarrez, inor gutxi aztertu zuen bere garaian  
egindako teoria ausart eta osatu hau, eta antzera ostean ere.  
Gaur, zor historiko hau kitatu nahi dugu.

Kapanaga ez da hizkuntzalaria.  
Baina, egia esan, ba daude hizkuntzen bilakaeran  
laguntza handia eman duten ikerle amateurak ere.  
Esaterako, Aquiles Luchoire frantziarrak,  
Akitaniako erromatar garai aurreko inskripzioek  
euskarazko hitzak zituztela frogatu zuen, 1878 urtean, hizkuntzalaria izan gabe.  
Bestetik, Manuel Gomez Moreno  
Andaluziako historia irakasleak  
idazkera zeltiberikoa deszifratzen lagundu zuen 1922 urtean.  
Beraz, hizkuntzalariak ez ezik,  
beste arlo batzutan dabilzan irakasle, idazle, apaiz zein edozein euskaltzale ere  
ongi etorriak dira euskararen jatorriaren ikerketa zeregin honetara.

Partaide interesgarriak ditugu.  
Gehienek liburu bat edo batzuk idatzi dituzte gai honen inguruan.  
Dirulaguntzarik gabe egindako liburuak izan dira,  
euren izerdiz idatzi eta euren diruz finantzatutakoak.  
Hori egin izanak, beraien meritu, dedikazio eta euskaltzaletasuna frogatzen dituzenez,  
guk, hortaz gain, eskerrak eman nahi genizkieke egin dituzten ekarpenengatik.  
Benetan, eskerrik asko, euskarari bide berriak irekitzeagatik.

Azalduko dugun teoria garrantzitsu bat Imanol Mugikarena da.  
Imanolek 80 urte dauzka eta daukan osasun egoeragatik  
ezin izan du gaur hona etorri.  
Aitor Zugastik hartuko du gaur bere lekua beren teoria azalduz.

Hipotesi asko azalduko dira.  
Esate baterako, euskarak gaur egun arte irautea ez dela miraria.  
Izan ere, esparru txiki-txiki baten hitz egin izan balitz bakarrik... agian, baina...  
Eta...Europako eremu zabal bateko hizkuntza izan balitz?  
ulertzekoa litzatekeen nonbaiten irautea, hots, gure txoko honetan irau izatea.



Atzerritarrek ere ez ditugu ahaztu nahi biltzar honetan.  
Azken 200 urte hauetan asko izan dira gure hizkuntzarekiko interesa erakutsi dutenak.  
Biltzarrean Antonio Arnaiz izango dugu euren ordeko.

Gaur egun, mundu oso praktikoan bizi garenez,  
baten batek galdetuko du:

buruhauste hauetan denbora eman, zertarako?

Ba... txistek egiteko edo pasadizoak kontatzeko behintzat balio duela frogatzeko; hona  
hemen bat:

Bizkaitarrak izan ei ziren harkaitzak aizkora moduan erabil zitezkeela  
ohartu ziren lehenak. Ez dakigu zehatz-mehatz non gertatu zen baina  
Anboto inguruan izan ei zen, ehiztari talde batek  
ehizatu gura zuten orein baten gainean  
atx zati bat jausten ikusi zutenean.  
Berehala, eurek be atx zati txiki bat hartu ta,  
kolpatzeko erabiltzen hasi ei ziren.

Baina, 40.000 urte beranduago, gipuzkoarrek, asmakizuna hobetuz,  
makila bat lotu omen zioten haiztari eta,  
horrela, haizt-kora sortu omen zuten,  
alegia, "haizt" a eta "kora" piloa zituen tramankulua.  
Askoz ere praktikoagoa zela ikusita,  
euskaldunen artean berehala zabaldu omen zen eta,  
horregatik, gaztelaniaz bizkaierazko berba zaharra  
mantendu den bitartean ("hacha=atxa),  
euskaraz euskaldun guztiok  
ekialdeko euskalkietan erabiltzen den "haizt" hitzetik sortutako  
"aiz" - "kora" erabiltzen dugu.

Txistek eta pasadizoak alde batera utzita,  
paleolinguistikak gizakiok lehenago zein animalia domestikatu genuen jakiteko ere  
balioko digu baina, horretarako, arratsaldean Bittor Kapanagari galdetu beharko diogu.

Euskararen hitzen esanahia ikertu nahi dugu,

esaten duguna sakontasun handiagoz esan ahal izateko.

Adibidez, *izena* hitza zein garrantzitsua den deskubrituko genuke  
("iz", izpi, argia; "iz-ena", argia-rena).

"Iz" erroak argia esan nahi duelako –besteak beste-, eta hortik "iz-akia".

Alegia, giz-akiok, animaliak, biz-igabeak,... argiaren "is"ladak gara.

Honela izanda, iz hitz honek

jakintza arlo askoren ikuspuntutik aztertzeke aukera emango liguke:

Fisika arlotik (kolore guztiak zuriaren islada desberdinak dira),

Filosofiaren ikuspegitik (Barandiaranek zioen moduan *iz-ena duen guztia iz-an badela*,  
(izana duela) alegia, *izen* eta *izan* (osagaia amankomuna dute),

Erljioak (beste kultura askotan bezala, gure hizkuntza zaharrak euskaldunok ere  
argiaren seme-alabak garela adierazten digu, eta baita ere Aranak proposatu zuen  
moduan: eguzkiko -> e(g)uzki(i)ko -> eusk)o,

Irakaskuntza alorrak ere badu zer ikusirik (agian euskara errazago ikasiko litzateke,  
erroetatik abiatuko bagina).

Eta, zer esanik ez, zertara etorri gara gaur Arantzazura?

Euskararen jatorriaz h"iz" egitera, argia egitera.

Gainera, atzerritar ikerle batek (izena ezin izan dugu gogoratu)

argi eta garbi esan zigun aspaldi:





*“europarrok euskarari begira gaude,  
kontinenteko hizkuntza zaharra hobeto ulertu eta  
jatorria aurkitu nahian baina,  
zeuek (euskaldunoi) ez baduzue argitzen, jai daukagu “*

Biltzar honetan Josu Naberanek  
Liriako ontziaren iberierazko esaldiaren interpretazioa  
emango da. Denborak esango du aurkikuntza honek  
norainoko eragina izango duen ondorengo urteetan.

Hasiera batean proposatutako egitarautik bi puntu kendu dira,  
goizean 8 ikerle ditugulako jada euren teoriak azaltzeko.  
Beraz, euskararen jatorriaz idatzi duten lehenengo euskaldunen lanak eta  
Mitxelenaren eskolako azterketak hurrengo biltzarretan aztertuko dira.

Apal-apal gaude, euskararen jatorriaz dakiguna hutsaren hurrengo baita.  
Kapanagak liburuan, Barandiaran-eri buruz ari dela, zera kontatzen du:  
“Joxemielekin solasaldi bat izan ondoren, baduzu  
ez dakigunaren ardura eta apaltasunaren sentipen”.

Baina guk jakin badakigu  
gogoa, kemena eta elkarlana mahai gainean jarriz gero,  
urrutira heldu gaitezkeela eta, 10-20 urte barru,  
euskararen jatorriaz dakiguna askoz gehiago izango dela.  
Ekin diezaiogun beraz, euskararen paleolinguistikaren bide zoragarri honi!

Ongi etorri ikerle eta partaide guztioi eta, baita,  
bere osasun egoera dela eta,  
gaur gure artean fisikoki egon ez arren,  
bihotzean daukagun Imanol Mujikari ere,  
gure eskerrik beroena.

Eta bukatzeko, nik nire aldetik,  
mila esker aurkezpena egiteko eman didazuen aukera honengatik.  
Deustuko Ikastola sortu zuten umeetarikoa bat naiz  
Eta nola ez dugu ba mirakuluetan sinetsiko!  
Ohorea da, bai niretzat eta bai euskaldun emakumeontzat ere  
historikoa izango den Euskararen Jatorriaren Lehengo Biltzar honi hasiera ematea.

